

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2020ko zerga ordaintzea

2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 16ra arteko egun balioudunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2020ko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan egin ahal izango dute ordainketa, udaleko diruzaintzan, aipatutako epe horretan. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Euskadiko Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean. Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, helbideratzeko kontua mantentzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Aipatutako epea amaitzean, automatikoki abiatuko da betearazte aldia, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera, eta dagozkion errekaratu eta berandutze interesak kobratuko dira.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Araia, 2020ko otsailaren 27a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ